



2022KO EKITALDIKO AURREKONTU-PROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

2022KO EKITALDIKO AURREKONTU-PROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

DESKRIBAPENA

Txosten honen xedea EUDELen 2022ko ekitaldiko aurrekontua aztertzea da. Horretarako, esan behar da aurrekontu hau egiteko kontuan hartu dela Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeei aplikatu beharreko aurrekontu-egitura.

Txosten honetan, lehenik eta behin, diru-sarreraren eta gastuen analisi ekonomikoa egiten da atalka, eta, ondoren, gastuen azterketa programaka garatzen da.

EUDELen 2022ko ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu parekatua 3.000.843,19 eurokoa da, hau da, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren hasierako aurreikuspenak baino ehuneko 0,31 handiagoa.

Gastuen sailkapen ekonomikoa, lotura juridikoa atal mailakoa da, eta gastuen programen araberrako sailkapenean, berriz, gastu arloaren mailakoa.

Txosten honi sarrera eta gastuen aurrekontuaren egoerak erantsi zaizkio. Konparaziorako, 2021eko ekitaldirako onetsitako aurrekontuaren hasierako aurreikuspenei buruzko datuak sartu dira.

DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN ANALISIA

2022ko ekitaldirako diru-sarreraren aurrekontu parekatua 3.000.843,19 eurokoa da. Aurreko ekitaldiko aurrekontuaren hasierako aurreikuspenekin alderatuta, aurrekontua ehuneko 0,31 handitu da.

Hona hemen 2022ko ekitaldiko diru-sarreraren aurrekontua atalka banakatuta eta 2021eko aurrekontuarekin alderatuta:

Zenbatekoak eurotan adierazita

		HASIERAKO AURREIKUSPENAK 2021	HASIERAKO AURREIKUSPENAK 2022	% BAR.	% 2022ko aurrekontuarekiko
3. ATALA GUZTIRA	Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	12.100,00	15.300,00	%26,45	%0,51
4. ATALA GUZTIRA	Transferentzia arruntak	2.923.513,48	2.928.256,62	%0,16	%97,58
	Zerga itunduen partaidetza	2.335.771,47	2.405.844,61	%3,00	%80,17
	Bazkideen kuotak	291.792,01	291.792,01	%0,00	%9,72
	Gobernantza proiektuaren ekarpenak	18.150,00	50.820,00	%180,00	%1,69
	Diru-laguntzagatiko sarrerak	277.800,00	179.800,00	-%35,28	%5,99
5. ATALA GUZTIRA	Ondare-sarrerak	56.066,88	57.286,57	%2,18	%1,91
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		2.991.680,36	3.000.843,19	%0,31	%100,00

2022ko ekitaldiko diru-sarreraren aurrekontuaren alderdirik azpimarragarrienak honako hauek dira:

3. atala. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk.

Atal honetan, nagusiki, EUDELeK IVAP-HAEEekin batera antolatzen duen Toki Zuzenbideari buruzko Euskal Mintegiaren programan izena emateagatiko diru-sarrerak aurreikusten dira, 12.800 eurokoak. EUDELeK aurreikusitako gastuaren ehuneko 20ko ekarpena egitea aurreikusten da.

Halaber, atal honetan 2.500 euroko beste diru-sarrera batzuk ere aurreikusten dira.

4. atala. Transferentzia arruntak.

Diru-sarreraren atalik garrantzitsuena da, diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko 97,58 hartzen baitu. Transferentzia arruntaren aurreikuspena ehuneko 0,16 handitu da 2021eko ekitaldiko hasierako aurreikuspenekin alderatuta; beraz, 2022ko ekitaldirako 2.928.256,62 euroko diru-sarrerak aurreikusten dira kontzeptu horrengatik.

Aipatzekoa da txosten hau egin den egunean ez direla egin Finantzen Lurralde Kontseiluak, eta horietan jakinaraziko direla 2022rako Udal Finantzaketarako Foru Funtzen aurreikuspenak. Beraz, Udal Finantzaketarako Foru Funtzen ehuneko 0,15eko diru-sarrerak kalkulatzeko, aurreko ekitaldiko hasierako aurreikuspenei ehuneko 3ko gehikuntza aplikatu zaie.

Taula honetan, zerga itunduetan izandako parte-hartzeari buruzko datuak ageri dira, Lurraldeka banakatuta:

Zenbatekoak eurotan adierazita

			HASIERAKO AURREIKUSPENAK 2021	HASIERAKO AURREIKUSPENAK 2022	Aldaketa % - 2022 / 2021
416		Foru Aldundiak eta beste Foru Erakunde batzuk	2.335.771,47 €	2.405.844,61 €	%3,00
	41601	Arabakoa. Zerga-partaidetza zehatza.	305.735,18 €	314.907,23 €	%3,00
	41602	Bizkaikoa. Zerga-partaidetza zehatza	1.283.129,71 €	1.321.623,60 €	%3,00
	41603	Gipuzkoakoa. Zerga-partaidetza zehatza	746.906,58 €	769.313,78 €	%3,00

2022rako ez da aurreikusten udal bazkideen kuotetan igoerarik.

Udalen finantzaketarako foru-funtsetan parte hartzea da EUDEL-en aurrekontuaren baliabiderik garrantzitsuena, diru-sarrera guztien ehuneko 80,17 baitira. Bestalde, bazkideen kuotak diru-sarrera guztien ehuneko 9,72 dira.

Bestalde, atal honetan aurreikusten dira gobernanzako bikaintasun-proiektuarekin (ELoGE) jarraitzeko diru-sarrerak, eta parte hartzen duten udalen ekarpenetan gauzatzen dira, 50.820 euroko zenbatekoan.

Transferentzia arrunten atalean, halaber, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek eta Emakundek hitzarmenak eta dirulaguntza izendunak formalizatzearagatiko diru-sarrerak aurreikusten dira; aurrekontu osoaren ehuneko 5,99 osatzen dute:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarena, udaletan euskararen erabilera sustatzeko planak diseinatu eta garatzeko, 28.000 euro zenbatekoarekin.
- Emakunderen 84.800 euro aurreikusi dira Berdinsarea sarerako eta Berdinbidean programarako.
- Emakunderena, berdintasunaren arloko 20/30 agendaren esparruan aurreikusitako tokiko proiektuetarako, 12.000 euro aurreikusten dira.
- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarena, etorkinentzako itzulpen-zerbitzurako, 55.000 euroko zenbatekoari eustea aurreikusten da.

5. atala. Ondare-sarrerak.

Ondare-sarreraren aurreikuspena 57.286,57 eurokoa da, eta bat dator Bilboko Colón de Larreategi kaleko 35. zenbakian dagoen EUDELen jabetzako higiezinaren alokairu-kontratuarekin.

GASTUEN AURREKONTUAREN ANALISIA

2022ko ekitaldiko gastuen aurrekontua 3.000.843,19 eurokoa da, hau da, aurreko ekitaldiko aurrekontua baino ehuneko 0,31 handiagoa.

Hona hemen 2022ko gastu-aurrekontuaren sailkapen ekonomikoa eta 2021eko ekitaldiko aurrekontuaren hasierako aurreikuspenekiko alderaketa:

Zenbatekoak eurotan adierazita

		HASTAPENEN AURREKONTU KREDITUAK 2021	HASTAPENEN AURREKONTU KREDITUAK 2022	% BAR	% 2022ko aurrekontuarekiko
LEHEN ATALA GUZTIRA	Langile-gastuak	1.482.616,30 €	1.539.787,98 €	%3,86	%51,31
2. ATALA GUZTIRA	Ondasun arruntan eta zerbitzuen erosketak	939.969,26 €	1.011.695,35 €	%7,63	%33,71
3. ATALA GUZTIRA	Gastu finantzarioak	14.177,34 €	7.348,85 €	-%48,16	%0,24
4. ATALA GUZTIRA	Transferentzia arruntak	110.253,20 €	22.636,50 €	-%79,47	%0,75
6. ATALA GUZTIRA	Inbertsio errealak	50.000,00 €	21.000,00 €	-%58,00	%0,70
9. ATALA GUZTIRA	Pasibo finantzarioak	394.664,26 €	398.374,51 €	%0,94	%13,28
GASTUAK GUZTIRA		2.991.680,36	3.000.843,19	%0,31	%100,00

1. atala. Langile-gastuak.

1. atalean 2022ko ekitaldirako aurreikusitako zenbatekoa 1.539.787,98 eurokoa da, gastu osoaren ehuneko 51,31, eta ehuneko 3,86ko hazkundera izan du aurreko ekitaldian aurreikusitako zenbatekoarekin alderatuta.

Langileen hirurteko berrien epemugaz gain, ordainsari-igoera ehuneko 2koa izango dela aurreikusten da, baita 2018tik 2020ra bitarteko ekitaldietako produktibitate finkatua ere, sortzapen-datatik igoerarik izan gabe. Elkarkidetzaren kuotak ehuneko 22,16 igo dira, erakundeko bost pertsonaren alde aitortutako atzerapenen ondorioz.

2. atala. Gastu arruntak eta zerbitzuetakoak.

2. atala gastu guztien ehuneko 33,71 da, eta ehuneko 7,63 igo da aurreko ekitaldiko hasierako aurreikuspenekin alderatuta.

Atal honetan honako hau azpimarra dezakegu:

- *Azterlan eta lan teknikoen* partida, 2022rako aurreikusitako 231.780,52 euroko zenbatekoarekin, honako hauetarako erabiliko da, besteak beste: erakundearen artxiboak digitalizatzeko, urteko kontuen auditoretza egiteko, antolaketaarako datu pertsonalen babesaren arloko formularioak eta prozedurak egokitze eta 20/30 agendaren esparruan beharrezkoak diren lanetarako.
- *Publizitaterako eta komunikaziorako* 38.312 euroko partida aurreikusiak, besteak beste, prentsa-zerbitzuak (19.312 euro), Udala aldizkaria (12.500 euro) eta webgunearen mantentze-lanak (3.000 euro) egiteko.
- *Proiektu eta programetarako* aurreikusitako zenbatekoak, 312.270 eurokoak, txosten honen hurrengo atalean xehetasun handiagoz azalduko direnak.
- *Bileren eta hitzaldien* partidak %1090eko igoera izan du; izan ere, aurreikusitako 119.000 euroetatik 100.000 euro Eudelen 40. urteurrenerako egin beharreko jarduerari dagozkie.
- *Programa informatikoen mantentze-lanetarako* partidak, 37.380 euroko zenbatekoarekin, barne hartzen ditu, besteak beste, 2021ean garatzen ari den espedienteak kudeatzeko sistemaren mantentze-lanak, SIS Eudelen eta udalaren informazio ekonomikorako sistemaren balizko handitzeak eta Eudelen webgunearen hostinga.

3. atala. Gastu finantzarioak.

Atal honek 7.348,85 euroko zuzkidura du, eta aurreko ekitaldietan Colón de Larreategi eta Ercilla kaleetako higiezinak erosteko hipoteka-maileguen interesengatiko gastuei dagokie. Atal honek ehuneko 48,16 egin du behera 2021eko hasierako aurreikuspenekin alderatuta.

4. atala. Transferentzia arruntak.

Transferentzia arrunten atala 22.636,50 eurokoa da.

Euskaltzaindiarekin sinatutako toponimia-hitzarmenari dagokion gastua 15.000 eurokoa izango da; 7.067 euro emango dira EUDEL-FEMPen arteko lankidetza-hitzarmenaren kontzeptuan, eta Euskaliten kolaboratzaile-kuota, 267 eurokoa, eta Innobasqueren kuota ere, 302,50 euro, jasoko dira.

6. atala. Inbertsio errealak.

Atal honetan, 21.000 euroko inbertsio materialak aurreikusten dira. 11.000 euro altzariei eta tresneriei dagozkie, eta 10.000 euro informazioa prozesatzeko ekipamenduei.

9. atala. Pasibo finantzarioak.

9. atalari dagokion zenbatekoa 398.374,51 eurokoa da, eta aurreko ekitaldiko aurrekontua baino ehuneko 0,94 handiagoa da atal honetan.

GASTUEN AURREKONTUAREN ANALISIA, PROGRAMEN ARABERA

Hona hemen 2022ko gastuen aurrekontuaren banakapena, programen arabera:

Zenbatekoak, eurotan adierazita

	HASTAPENeko AURREKONTU KREDITUAK 2021	HASTAPENeko AURREKONTU KREDITUAK 2022	Aldaketa %
ADMINISTRATIO OROKORRA	2.615.530,36	2.673.573,19	%2,22
PRESTAKUNTZA	33.700,00	44.650,00	%32,49
GIZARTE-ZERBITZUAK	50.000,00	50.000,00	%0,00
BERDINTASUNA	102.800,00	114.800,00	%11,67
EUSKARA	47.500,00	48.500,00	%2,11
UDALERRI TXIKIAK	14.000,00	18.500,00	%32,14
BERRIKUNTZA	110.000,00	0,00	-%100,00
PROIEKTU EUROPARRAK (GOBERNANTZA)	18.150,00	50.820,00	%180,00%
GUZTIRA	2.991.680,36	3.000.843,19	%0,31

Programa horietatik, honako hau nabarmentzen da:

Administrazio Orokorren programan Elkarteari oro har eragiten dioten jardueriei dagozkien gastuak sartzen dira. Gastu-bolumen handiena duen programa da, 2.673.573,19 eurokoa.

Nabarmentzekoa da langile-gastuen garrantzia (I. atala: 1.539.787,98 euro) eta hipoteka-maileguen finantza-karga (III. eta IX. atalak: 405.723,36 euro). Elkartearen bi maileguetako bat 2022ko ekitaldian zehar amortizatuko da.

231.780,52 euro aurreikusten dira *azterlan eta lan teknikoen* partidan, eta 119.000 euro bilera eta hitzaldien partidan; horietatik, aurreikusten da 100.000 euro erabiltzea Eudelen 40. urteurreneko gastuetarako.

Halaber, Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioarekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenari dagokion ekarpena aurreikusten da.

Gastu arrunta eta inbertsio errealak ere jasotzen dira programa honetan.

Prestakuntza programan 44.650 euroko aurrekontu-zuzkidura aurreikusten da. Aurrekontu-zuzkiduratik, 16.000 euro Toki Zuzenbidearen Euskal Mintegira bideratuko dira, 18.000 euro udaletako politikariak eta zuzendariak laguntza programetan prestatzeko, 7.650 euro lidergoan prestatzeko eta 3.000 euro Tokiko Zuzendaritza Publikoaren programarako.

Gizarte-zerbitzuen programan, Eusko Jaurlaritzak finantzatutako etorkinentzako itzulpen-zerbitzuari jarraipena emateko, eutsi egiten zaio aurreko ekitaldiko 50.000 euroko zenbatekoari, zerbitzuaren estaldura bermatuko duen enpresa kontratatzeko, aurreikusitako gastuaren ehuneko 10eko langile-gastuez gain.

Berdintasun programan, Berdinsarea sarea eta Berdinbidean programa lantzen jarraituko dugu. 102.800 euroko guztizko zuzkiduratik, EUDELeke egindako ekarpena 18.000 eurokoa gehi arloko teknikariaren gastuei dagokiena izango da, eta 84.800 eurokoa Emakunderena. Halaber, 12.000 euro aurreikusten dira Emakundek ere finantzatutako 20/30 agendaren esparruko berdintasun-jardueretarako.

Euskara programan, 2022rako 48.500 euroko gastua aurreikusten da; horietatik 28.000 euro Eusko Jaurlaritzarekin Udaletan Euskara sustatzeko ekintza-planak diseinatu eta garatzeko egindako hitzarmena betetzeko erabiliko dira, 15.000 euro Euskaltzaindiarekin toponimiari buruzko hitzarmenean hartutako betebeharreri aurre egiteko eta 5.500 euro programaren gastu osagarrietarako.

Udalerri txikien programan, dirulaguntzei eta udal-intereseko arau-aldaketei buruzko datu-basearen zerbitzua mantentzen da (Infoudala). 18.500 euroko zuzkidura aurreikusten da, EUDELen baliabide propioekin finantzatua oso-osorik.

Proiektu europarrei buruzko programa 50.820 euroz hornituko da. ELoGEn proiekturako, gobernantza onaren arloko bikaintasunera bideratua, erabiliko da zenbateko osoa, eta parte hartzen duten udaletatik aurreikusten diren ekarpenekin finantzatuko da.

ONDORIOAK

2022rako, diru-sarrera eta gastuetan parekatuta dago aurrekontua, eta 3.000.843,19 eurokoa da; hau da, aurreko ekitaldiko hasierako aurreikuspenekin alderatuta, ehuneko 0,31 handiagoa.

Diru-sarrerei buruz:

- Udal Finantzaketarako Foru Funtsen ehuneko 0,15eko diru-sarrerak kalkulatzeko, ehuneko 3ko igoera aplikatu zaie aurreko ekitaldiko hasierako aurreikuspenei; izan ere, txosten hau egin den egunean egin gabe daude Finantzen Lurralde Kontseiluak, eta horietan jakinaraziko dira 2022rako Udal Finantzaketarako Foru Funtsen aurreikuspenak.
- Ez da aurreikusten Eusko Jaurlaritzaren 110.000 euroko diru-sarrerarik Tokiko Berrikuntza Agendarako; diru-sarrera hori aurreikusita zegoen 2021eko ekitaldiko aurrekontuan.
- Udal bazkideen kuotak mantendu egingo dira, eta Colón de Larreategi kaleko 35. zenbakian dagoen higiezinaren alokairuagatik diru-sarrerak jasotzen jarraitzea aurreikusten da.
- Toki Zuzenbideari buruzko Euskal Mintegiari dagokionez, exekuzioan matrikulak kobratuz finantzatu ohi den programa bat bada ere, EUDELe aurreikusitako gastuaren ehuneko 20ko ekarpena egitea aurreikusten da, eta ehuneko 80koa matrikulen kargura.
- Halaber, Eusko Jaurlaritzaren eta Emakunderen dirulaguntzak jasotzen jarraitzea aurreikusten da, honako programa hauei dagokienez: Berdintasuna (96.800 €), Euskara (28.000 €) eta Gizarte Zerbitzuak (55.000 €).
- ELoGEren proiektuarekin, gobernantza onaren arloko bikaintasunera bideratua, jarraitzeko diru-sarrerak aurreikusten dira, eta parte hartzen duten udalen 50.820 euroko ekarpenetan gauzatuko dira.

Gastuei buruz:

Gastu-aurrekontuaren ehuneko 64,83 langile-gastuen (ehuneko 51,31) eta hipoteka-maileguen (ehuneko 13,52) artean banatzen da.

Ondasun eta zerbitzuen erosketari buruzko atalean (%33,71), gastu arruntaz gain, honako hauek nabarmendu ditzakegu:

- 2022rako aurreikusitako 231.780,52 euroko zenbatekoa duten azterlan eta lan teknikoen partida, besteak beste, honako hauetarako erabiliko da: erakundearen artxiboak digitalizatzeko, urteko kontuen auditoretza egiteko, datu pertsonalak babesteko antolaketarako formularioak eta prozedurak egokitzeko eta 20/30 agendaren esparruan beharrezkoak diren lanetarako.
- Publizitaterako eta komunikaziorako aurreikusitako 38.312 euroko partidak. Horien artean, nabarmentzekoak dira prentsa-zerbitzuak (19.312 euro), Udala aldizkaria (12.500 euro) eta webgunearen mantentze-lanak (3.000 euro).
- Bilera eta hitzaldien partidak %1090eko igoera izan du; izan ere, aurreikusitako 119.000 euroetatik 100.000 euro Eudelen 40. urteurrena dela-eta egin beharreko jarduerari dagozkie.
- Programa informatikoak mantentzeko partidak (37.380 euro) barne hartzen ditu, besteak beste, 2021ean garatzen ari den espedienteak kudeatzeko sistemaren mantentze-lanak eta balizko handitzeak, SIS Eudelen eta udalaren informazio ekonomikorako sistemaren balizko handitzeak eta Eudelen webgunearen hostinga.
- Proiektu eta programetarako aurreikusitako zenbatekoak 312.270 eurokoak dira.

Inbertsio errealei dagokienez, aurreko ekitaldiarekiko %58ko murrizketa aurreikusten da. Altzarietan eta tresnetan inbertitzea aurreikusten da (11.000 euro). Partida horretan, 10.000 euro aurreikusten dira Ercillako ekitaldi-aretoko ekipo berrietarako (10.000 euro), eta 10.000 euro *informazio-prozesuetarako ekipamenduetan*, ordenagailuak erosteko.

Bilbon, 2021eko urriaren 1ean.

ERANSKINA

EUDEL-EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA

2022KO AURREKONTUEN PROIEKTUA DIRU-SARREREN EGOERA

SAILKAPEN EKONOMIKOA	DESKRIBAPENA	EUROTAN		
		HASIERAKO AURREIKUSPEN AK 2021	HASIERAKO AURREIKUSPEN AK 2022	Aldaketa % - 2022 / 2021
		2.991.680,36	3.000.843,19	%0,31

3		TASAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK	12.100,00	15.300,00	%26,45
	399	Askotariko bestelako diru-sarrerak	12.100,00	15.300,00	%26,45
	39901	Diru-sarrerak Jardunaldiengatik	9.600,00	12.800,00	%33,33
	39902	Beste diru-sarrera batzuk	2.500,00	2.500,00	%0,00

4		TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.923.513,48	2.928.256,62	%0,16
	41	Euskal Autonomia Erkidegokoak	2.923.513,48	2.928.256,62	%0,16%
	410	Administrazio Orokorra	277.800,00	179.800,00	-%35,28%
	41001	Berdinsarea-Berdinbidean. Emakunde	84.800,00	84.800,00	%0,00
	41002	Euskara Hitzarmena. Eusko Jaurlaritza	28.000,00	28.000,00	%0,00
	41003	TBA (Herrismartik). Eusko Jaurlaritza	110.000,00	0,00	-%100,00
	41003	20/30 Agenda Berdintasuna. Emakunde.	0,00	12.000,00	
	41004	Immigr. Itzulpen hitzarmena. Eusko Jaurlaritza.	55.000,00	55.000,00	%0,00
	416	Foru Aldundiak eta beste Foru Erakunde batzuk	2.335.771,47	2.405.844,61	%3,00
	41601	Arabakoa. Zerga-partaidetza zehatza	305.735,18	314.907,23	%3,00
	41602	Bizkaikoa. Zerga-partaidetza zehatza	1.283.129,71	1.321.623,60	%3,00
	41603	Gipuzkoakoa. Zerga-partaidetza zehatza	746.906,58	769.313,78	%3,00
	417	Tokiko erakundeak	309.942,01	342.612,01	%10,54
	41701	Eudeleko bazkideen kuotak	291.792,01	291.792,01	%0,00
	41702	Gobernantza proiektuaren ekarpenak	18.150,00	50.820,00	%180,00

5		ONDARE-SARRERAK	56.066,88	57.286,57	%2,18
	54	Ondasun higiezin errentak	56.066,88	57.286,57	%2,18
	540	Hiri-finken errentamendua	56.066,88	57.286,57	%2,18
	540	Hiri-finken errentamendua	56.066,88	57.286,57	%2,18

EUDEL-EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA

**2022KO AURREKONTU PROIEKTUA
GASTUEN EGOERA**

Eurotan

SAILKAPEN EKONOMIKOA	DESKRIBAPENA	HASTAPENEKO AURREKONTU KREDITUAK 2021	HASTAPENEKO AURREKONTU KREDITUAK 2022	Aldaketa % - 2022 / 2021
		2.991.680,36	3.000.843,19	0,31%

1		LANGILE-GASTUAK	1.482.616,30	1.539.787,98	%3,86
	11	Behin-behineko langileak	62.139,30	64.124,49	%3,19
	110	Behin-behineko langileen ordainsariak	62.139,30	64.124,49	%3,19
	13	Lan-kontratuko langileak	1.085.810,28	1.132.746,04	%4,32
	130	Lan-kontratuko langile finkoen ordainsariak	1.085.810,28	1.132.746,04	%4,32
	16	Kuotak, prestazioak eta gastu sozialak enplegatzailearen kontura	334.666,72	342.917,45	%2,47
	160	Gizarte-kuotak	317.156,06	325.121,47	%2,51
	16001	Gizarte Segurantzak	286.382,90	287.527,85	%0,40
	16004	Elkarkidetza kuotak	30.773,16	37.593,62	%22,16
	163	Lan-kontratuko langileen gizarte-gastuak	17.510,66	17.795,98	%1,63
	16301	Langileen prestakuntza	8.000,00	8.000,00	%0,00
	16305	Bizitza- eta istripu-seguruak	9.510,66	9.795,98	%3,00

2		ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN EROSKETA	939.969,26	1.011.695,35	%7,63
	20	Errentamenduak	8.261,00	8.328,83	%0,82
	201	Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk	2.261,00	2.328,83	%3,00
	20101	Garaje plazen errentamenduak	2.261,00	2.328,83	%3,00
	203	Garraio-materiala	6.000,00	6.000,00	%0,00
	20301	Garraio-tresnen errentamendua	6.000,00	6.000,00	%0,00
	21	Mantentze-eta kontserbatze-konponketak	3.000,00	3.000,00	%0,00
	214	Altzarien konponketak	3.000,00	3.000,00	%0,00

	22		Materiala, hornidurak eta bestelakoak	903.708,26	970.366,52	%7,38
		220	Bulegoko materiala	14.020,00	16.020,00	%14,27
		22001	Bulegoko materiala	10.500,00	10.500,00	%0,00
		22002	Prentsa, aldizkaria, liburuak eta beste argitalpen batzuk	3.000,00	5.000,00	%66,67
		22003	Material informatiko inbentariaezina	520,00	520,00	%0,00
		221	Hornidurak	16.800,00	17.304,00	%3,00
		22101	Energia elektrikoaren hornidurak	16.000,00	16.480,00	%3,00
		22102	Ur-hornidurak	800,00	824,00	3,00%
		222	Komunikazioak	34.250,00	35.000,00	%2,19
		22201	Telefono bidezko komunikazioak	25.000,00	25.750,00	%3,00
		22202	Posta bidezko komunikazioak	9.250,00	9.250,00	%0,00
		224	Eraikinetako aseguruari sariak	3.300,00	7.500,00	%127,27
		225	Zergak	3.500,00	3.000,00	-%14,29
		226	Askotariko gastuak	82.312,00	181.312,00	%120,27
		22602	Protokolo eta ordezkapen gastuak	1.000,00	1.000,00	%0,00
		22603	Publizitatea eta komunikazioa	48.312,00	38.312,00	-%20,70
		2260301	Publizitatea eta propaganda	1.000,00	1.000,00	%0,00
		2260302	Prentsa eta komunikazio zerbitzuak	22.312,00	19.312,00	-%13,45
		2260303	UDALA aldizkaria	12.500,00	12.500,00	%0,00
		2260304	Argitalpenak	3.000,00	2.500,00	-%16,67
		2260305	Webgunearen mantentzea	9.500,00	3.000,00	-68,42%
		22604	Defentsa juridikoa	6.000,00	6.000,00	%0,00
		22605	Bilerak eta hitzaldiak	10.000,00	119.000,00	%1090,00
		22607	Askotariko gastuak	1.000,00	1.000,00	%0,00
		22609	Funts bibliografikoak	16.000,00	16.000,00	%0,00
		227	Kanpoko beste enpresa batzuek egindako lanak	388.376,26	397.960,52	%2,47
		22701	Garbiketa-enpresetako lanak	39.400,00	40.000,00	%1,52
		22707	Azterlan eta lan teknikoak	231.479,41	231.780,52	%0,13
		22710	Posta-zerbitzuak	2.000,00	2.000,00	%0,00
		22711	Programa informatikoen mantentzea	26.696,85	37.380,00	%40,02
		22712	Jardunaldiak eta mintegiak	6.000,00	5.000,00	-%16,67
		22713	Jabeen komunitateen kuotak	32.800,00	32.800,00	%0,00
		22714	Euskara Barne Plana	5.000,00	3.000,00	-%40,00
		22715	Kanpoko beste enpresa batzuek egindako lanak	10.000,00	8.000,00	-20,00%
		22716	Itzulpen zerbitzuak	15.000,00	30.000,00	100,00%
		22718	Berdintasun Plana	20.000,00	8.000,00	-60,00%

		228	Proiektuak eta programak	361.150,00	312.270,00	-%13,53
		22801	Udalerri txikietako Aseguru Zerbitzuak (INFOUDALA)	14.000,00	18.500,00	%32,14
		22802	Tokiko Zuzenbidearen Euskal Mintegia	16.000,00	16.000,00	%0,00
		22803	Tokiko zuzendaritza publikoaren prestakuntza	0,00	3.000,00	
		22804	Prestakuntza - laguntza-programak	10.050,00	18.000,00	%79,10
		22805	Lidergoaren prestakuntza	7.650,00	7.650,00	%0,00
		22806	Proiektu Europarrak	18.150,00	50.820,00	%180,00
		22807	Berdinsarea berdintasun sarea	52.400,00	0,00	-%100,00
		22808	Berdinbidean berdintasun sarea	50.400,00	0,00	-%100,00
		22807	Berdinsarea / Baskeskola berdintasuna	0,00	102.800,00	
		22808	20/30 agenda berdintasuna	0,00	12.000,00	
		22809	EUDEL euskara	32.500,00	33.500,00	%3,08
		22810	TBA (Herrismartik)	110.000,00	0,00	%-100,00
		22811	Immigrazio Itzulpen Zerbitzuak	50.000,00	50.000,00	%0,00
	23		Zerbitzuagatiko kalte-ordaina	25.000,00	30.000,00	%20,00
		230	Mugimendu eta garraio pertsonalerako dietak	15.000,00	15.000,00	%0,00
		231	Goi-karguen mugimendu eta garraiorako dietak	10.000,00	15.000,00	%0,00

3			GASTU FINANTZARIOAK	14.177,34	7.348,85	-%48,16
	33		L/Pri egindako maileguetakoak	14.177,34	7.348,85	-%48,16
		331	L/Pri egindako maileguen interesak	14.177,34	7.348,85	-%48,16

4			TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	110.253,20	22.636,50	-%79,47
	42		Lurralde Historikoari	87.919,20	0,00	-%100,00
		420	Foru Aldundia eta beste foru erakunde batzuk	87.919,20	0,00	-%100,00
		42001	Udalkutxa 2020 aurrelikidazio negatiboa	87.919,20	0,00	-%100,00
	48		Irabazi-asmorik gabeko familiei eta erakundeei	22.334,00	22.636,50	%1,35
		481	Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	22.334,00	22.636,50	%1,35
		48101	Hitzarmena FEMPeKin	7.067,00	7.067,00	%0,00
		48102	Hitzarmena EUSKALTZAINDIArekin	15.000,00	15.000,00	%0,00
		48103	Hitzarmena EUSKALITekin	267,00	267,00	%0,00
		48104	Innobasque Kuota	0,00	302,50	

6			INBERTSIO ERREALAK	50.000,00	21.000,00	-%58,00
	62		Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako inbertsioa	30.000,00	21.000,00	-%30,00
		622	Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk	9.000,00	0,00	-%100,00
		622.02	Beste eraikin eta eraikuntza batzuk	9.000,00	0,00	-%100,00
		625	Altzariak eta tresnak	11.000,00	11.000,00	%0,00
		62501	Altzariak	1.000,00	1.000,00	%0,00
		62502	Bulego-ekipoak	10.000,00	10.000,00	%0,00
		626	Informazioa prozesatzeko ekipoak	10.000,00	10.000,00	%0,00
	64		Inbertsio ez-materialetako gastuak	20.000,00	0,00	-%100,00
		644	Aplikazio informatikoetako gastuak	20.000,00	0,00	-%100,00
		64401	Programetako inbertsioak	20.000,00	0,00	-%100,00

9			PASIBO FINANTZARIOAK	394.664,26	398.374,51	%0,94
	93		L/P Maileguen Amortizazioa	394.664,26	398.374,51	%0,94
		931	Sektore publikotik kanpokoak	394.664,26	398.374,51	%0,94
		93101	L/P Colón de Larreategiko maileguaren amortizazioa	149.547,30	150.098,39	%0,37
		93102	L/P. Ercillako maileguaren amortizazioa	245.116,96	248.276,12	1,29%

Batzorde Eragileak 2021eko urriaren 14ko bilkuran onetsitako proiektua.